

PODIUMA

Deskribapena: Kike institutuaren jolastokian ibiltzen da.

Kike: Gazteen inguruan topiko asko daude zabaldua: ez dituztela zaharrak errespetatzen, arauak are eta gutxiago, zakarrak, lotsagabeak, alferrak eta berekoiak direla...

Deskribapena: Deabruak hartutako gazte bat azaltzen da.

Kike: Tira edo horrelako zerbait!

Deskribapena: Kikek jolastokian ibiltzen jarraitzen du eta hizketan dagoen bitartean podium baten ondora iristen da. "ERABILERA" hitza ikusten dugu.

Kike: Eta hau gutxi balitz, euskara ez dutela erabiltzen edo erabiltzen dutenean gaizki erabiltzen dutela esaten da.

Deskribapena: Kikek behatzak klaskatzen ditu eta laurogeigarren hamarkadaren look-az jantzita agertzen da amon bat, gazte bat eta ume bat ondoan dituela. Kikek helduaren rola jokatu du.

Kike: Laurogeita bederatziko kale neurketaren arabera, gazteak podiumetik kanpo zeuden, euskara gutxien zerabilen adin-multzoa zelako.

Deskribapena: Bakoitzak bere lekua hartzen du eta gaztea podiumetik kanpo geratzen da. Lehenak lore sorta polita jasotzen du.

Kikek berriz klaskatzen ditu behatzak eta denak gaur egungo arrokekin ikusten ditugu.

Kike: Baina bi mila eta hamaikako datuen arabera egoera asko aldatu da.

Deskribapena: Bakoitzak bere sailkapen berria hartzen du: haurra lehenengoan, gaztea bigarrenean, Kike hirugarrenean; adinekoa podiumetik kanpo. Umea eta gaztea beraien igoera ospatzen ageri dira, zaharra berriz kexu.

Kike: Hurrek eta gazteek adinekoei eta helduoi aurea hartu digute.